

2024 EKAINA PROGRAMA

Donostiako
Emakumeen
Etxea

Okendo kalea 9, DONOSTIA



TAILERRA

Larunbata 8

AUTODEFENTSA FEMINISTA



Ikasi nahi duzu eraso matxistei aurre egiten? Kalean aske sentitu nahi duzu? Uste duzu ezingo zarela defendatu?

Ordua: 10:00 - 14:00 / 15:00 - 19:00

Formatzailea: Emagin

Hizkuntza: Gaztelania

Izen ematea: 943 48 34 70 / berdintasuna@donostia.eus

Antolatzailea: Berdintasun Saila

IKASTAROA

asteartea 11 eta asteartea 25

ETXEKO LANGILEEI ZUZENDATUTAKO ESKOLA POLITIKOA



Lan eta gizarte eraldaketarako tresnak etxeko lanetan. 8 modulo izango dira, maiatzeko azken astean hasiko da, datorren urteko urtarrilean amaituko dira eta Etxeko Langileen Taldearen espazioan egingo dira.

Ordua: 16:30 - 18:30

Hizkuntza: Gaztelania

GIDA AURKEZPENA

osteguna 13

GARUNEKO PARALISIA DUTEN PERTSONEN GIDA ETIKO SANITARIOAREN AURKEZPENA

Hizlaria: Coro Rubio



Ordua: 18:00

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Osatzeneko osasun ekitate ezaren taldea

ZINEA

Asteartea 18

ZINEFORUM FEMINISTA



Ordua: 19:00

Antolatzailea: Emakumeen Etxeko Zine Batzordea

2024 EKAINA PROGRAMA

Donostiako
Emakumeen
Etxea

Okendo kalea 9, DONOSTIA



TAILERRA

astelehena 17 eta asteazkena 19

SEXU HEZIKETA TAILERRA: SEXUALITATE PROPIOA BARRUTIK KANPORA ERAIKITZEN



Emakumeen sexualitatea egungo genero-estereotipoen aginduetan eraikitzen da oraindik ere. Emakume askok sexualitateari norbaitekin modu berezian eta/edo erromantikoan konektatzeko funtzioa ematen diote, honek zentzua hartzen duelarik soilik hura baimendu eta legitimatzen duen hirugarren subjektu bat badago. Tailer honen helburua emakumeen egungo sexualitatearen eraikuntza zalantzan jartzea eta geure sexualitatea norberaren beharretatik abiatuta bizitzeko tresnak lortzea da, guretzat koherentea eta asegarrria izan dadin.

Izen-ematea: maiatzaren 27tik ekainaren 9ra (biak barne), honako web orrialdeen bidez:
www.donostiakoemakumeenetxea.com
www.donostia.eus/berdintasuna

Laguntza behar baduzu, anima zaitetz eta hurbil zaitetz Etxera, ez geratu izena eman gabe.

Ordua: 18:30 - 20:30

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak: SEDRA (Federación Planificación Familiar), Emakumeen Etxearen Elkartearen lankidetzarekin.

UMOREZKO IKUSKIZUNA

osteguna 20

ZTANDAP

Bakean Dagoena Bakean Utzi” eta “Luze edo Motz” emankizun arrakastatsuen haritik, “eztandaP” ikuskizun honetan ere Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraiak generoa hartuko dute umoregai eta eguneroko gaiak lehertzen saiatuko dira betaurreko moreak jantzita. Horretarako orgasmo arrakala, maitasun erromantikoa, señorak eta elkarbizitza izango dituzte hizpide, besteak beste. Kritika eginez, deseraikiz eta barre eginez bazterrak eztanda arazteko prest daude!



Ordua: 19:00

Hizkuntza: Euskera

28J MANIFESTAZIOA

ostirala 28

Badator ekainaren 28a, SEXU ASKATASUNAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA DENA: HARROTASUN EGUNA.

Adi egon deialdietara!

